

ANALISIA



Ikastetxeko testuinguruaren araberako euskalduntzea? Hori tranpa da



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIA: EAJ-PNV

EAEn Hezkuntza Akordioa bideratzeko oinarriak aurkeztu ditu Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak, eta 16 urterekin ikasleek euskaraz B2 maila lortzea jarri du helburu, baina praktikan adar-jotzea dirudi: helburu mailakatu izango da, “modu progresiboan” egitekoa, “zentro bakoitzaren errealitatearen arabera”, eta gainera, egungo hizkuntza-ereduak gainditzeko asmorik gabe.

Ikasleen euskara-lorpen adierazleak ikastetxearen ingurune soziolinguistikoaren arabera izatea planteamendu tranposoa dela argudiatu zigun Aitor Idigoras irakasleak: “Ingurune soziolinguistikoak inoiz ezin da aitzakia izan lorpen adierazleak malgutzeko, ala legeak jasotzen du matematiketako emaitzak baxuagoak izan daitezkeela Ezkerraldean, ingurune sozioekonomiko okerragoa dutelako? Juxtu alderantzizkoa behar luke administrazioaren planteamenduak: baldintza soziolinguistiko okerragoak ditu ikastetxeak? Ba ikastetxe horretan indarrak jarriko ditugu, euskara mailan gainerakoen pareko lorpen adierazleak bermatu ahal izateko”.

A, B eta D ereduak gainditzea ere eragileen aspaldiko aldarrikapena da, baina Uriarteren hitzetan, lehenengo helburua jarri nahi dute (B2 irteera-profila) eta “gero ikusiko dugu helburua lortzeko [ereduen sistema] nahikoa den ala aldaketak egin behar ote diren”. Nola izango da nahikoa ereduen sistema? B ereduaren ikasi duen %73ak ez du B2 maila lortu, eta berriki argitaratuenez, 200.000 ikasle bakoiti gehiagok euskaldundu gabe bukatu dute derrigorrezko hezkuntza.

Hizkuntza-eredu bat eta bakarra?

Hiru ereduen sistema gainditzeko borondate gutxi ikusten zaio EAJri. Uriarteren alderdikide Jone Berriozabalek hala dio: “Markoa gainditzea zer da, eredu bat eta bakarra herri guztientzat? Eredu bat eta bakarra ikasle guztientzat? Horretaz ari bagara, gu ez gatoz bat eta gainera ez da posible, gure buruari eman diogun legediak ez duelako onartzen”. Katalunian, baina, eredu bat eta bakarra dute, murgiltze eredu edo D eredu. Gauza bat argi dago, Sortzen Elkarteak dioen moduan “akordioak ezinbestean jaso behar du ikasle euskaldun eleanitzak bermatuko dituen eredu orokortua, bestela ez da idatzita dagoen helburua lortuko”.

EKONOMIAREN TALAIAN

EAJk faktura pasa dio ELAri



Juan Mari Arregi

Duela gutxi jakin dugu EAJren esku dagoen Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasunak sindikatuari eskatu dizkiela grebak egiteagatik ordaintzaren bat jaso duten langileen nor-tasuna, abonatuak kopuruak, eta hala bada, 2014, 2015, 2016 eta 2017 ekitaldietako erretentzio datuak. Hau da, Bizkaiko Ogasunak erabaki du euskal sindikatuen erresistentzia kutxa ikertzea. Kutxa hori gehien erabili duena ELA izan da. Berak emandako datu ofizialen arabera, 2008 eta 2011 urteen artean 13,7 milioi euro ekarri zituen erresistentzia kutxara -bere gastuen %15,1- eta 2012 eta 2016 artean 19,1 milioi izan ziren -gastuen %16,24-.

Hain justu, eta kurioski, joan den urtean Bizkaiko zahar etxetako 370 eguneko greba luzea gidatu zuenean erabili behar izan zuen gehien erresistentzia kutxa ELAk. Eta greba horretan, Bizkaiko Aldundia oso gogor inplikatu zen, sindikatuaren eta ordezkari politikoen arteko konfrontazio serioa eraginez; ELAk eta EAJk elkarren artean duten harreman mikatzaren erakusgarri da hori, Urkullu lehendakaria eta buruzagitzak jeltzalek hasita. ELAk ziurtatu du 38 urte daramatzala euskal ogasunek jarritako irizpideak betetzen eta azaldu duenez “inoiz ez da erresistentzia kutxako indemnitazioa lan errenta gisa hartu”.

Argi dago Bizkaiko Ogasuneko zerga ekimen hori EAJk sindikatu abertzaleari pasa nahi dion faktura dela. Ez du “kontrabotererik” nahi, ezta inork bere inguruan itzal egite-rik ere. Sindikatu otzanak nahi ditu. Hobe luke Ogasunak ohiko zerga-iruzurrean sakontzea, ongi baitaki non egiten den iruzurra eta ez zaio hain arrotz. Dagoen lekuan egonik ere pertsegitu behar luke.